

109/2015 DEKRETUA, ekainaren 23koa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzkoa.

Euskal erakundeek ikerkuntzaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin dute denboraren joanean, beti enpresen hobekuntza lehiakorrari eta ongizate nahiz aberastasun ekonomikoaren eta sozialaren sorkuntzari laguntzeko ikuspegiarekin. Estrategia horren ondorioz, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea eraiki da, eta sare horri esker, Euskadi Europar Batasuneko goi-mailako berrikuntzako eskualdeen taldean dago; 49/2014 Dekretuan, apirilaren 8koan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzekoan, zehaztuta dago sare hori.

Sistema honen erdigunea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak dira, eta gune horren arautegia jasota dago urriaren 1eko 221/2002 Dekretuan. «Teknologiaren Euskal Sarea» eratu zuen apirilaren 29ko 96/1997 Dekretua dago arautegi horren jatorrian. Bertan ezarri ziren Euskadiko ikerkuntza teknologikoko erakundeen arteko lankidetzak- eta koordinazio-harremanak, eta zehaztu ziren harreman horien ezaugarriak eta funtzioak. Ondoren, 278/2000 Dekretuak Sarea zabaldu, eragile zientifikoak sartu, eta «Zientziaren eta Teknologiaren Euskal Sarea» izena hartu zuen. Ondoren, 221/2002 Dekretuak osasun-ikerkuntzako eragileak eta berrikuntza-eragileak txertatu zituen, eta I+G Sanitarioko Unitateak eta Berrikuntzako Bitarteko Erakundeak sartu zituen. Horrela, Sareak «Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea» izena hartu zuen. Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren aldeko apustua sendotzeak beharrezkoa egin zuen Eragile Berezi batzuk ere sortzea, Eusko Jaurlaritzari laguntza emateko zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloko politika berriak diseinatzen, ezartzen eta sustatzen.

Arautegi horri esker hainbat eragile garatu, arautu eta sendotu ahal izan dira, eta eragile horiek ikerkuntzaren eta ezagutzaren arloko eskaintza aurreratu bat eratu dute, unean-unean gure enpresen eta gizartearen beharrei erantzun ahal izateko. Era berean, azpiegitura zientifiko eta teknologiko adimendun bat sortu ahal izan da, sarean modu osagarrian eta koordinatuan lan egitera bideratua, merkatuari begira eta bezeroarengandik hurbil.

Azken hamarkadan asko aldatu da ingurunea, ordea, Euskadik egokitu egin behar izan du berrikuntza-estrategia, eta gehiago txertatu da Europako estrategietan. Alde batetik, RIS3 kontzeptua bultzatu du Europak, hau da, «espezializazio adimendunerako ikerkuntza- eta berrikuntza-estrategiak», I+G+b baliabideak eta inbertsioak bildu ahal izateko produkzio-gaitasunekin sinergia argiak dauden arloetan. Bestetik, martxan jarri da 2020 Horizontea europar programa berria, [www.ec.europa.eu/programmes/horizon-2020/](http://www.ec.europa.eu/programmes/horizon-2020/), Europa 2020 Estrategiaren baitan. Programa horrek bi helburu ditu: bata, egungo krisia gainditzea eta, bestea, hazkundera adimentsu, jasangarri eta integratzaileagoa izateko baldintzak sortzea.

Horregatik guztiagatik, eta Euskal Politika Zientifiko Teknologikoak lortu duen heldutasuna ikusita, Eusko Jaurlaritzak gure enpresei eta eragile ekonomikoei erronka ekonomiko eta sozial berriei aurre egiten eta abantaila lehiakor iraunkorrak eraikitzen lagunduko dien estrategia bat sustatzen du. Etorkizuneko etapa berri bat sustatzeko apustua egitea da. Gainera, 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean horrela dago jasota, betiere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak onartutako estrategiarekin bat etorritik. Era horretan Euskadi gizarte inklusibo, berritzaile, gogoetatsu eta jasangarriagoa izan dadin esparru guztietan, baita hizkuntzaren arloan zein emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarenean ere.

([http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/5585/PCTI\\_Euskadi\\_2020.pdf?1422526213](http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/5585/PCTI_Euskadi_2020.pdf?1422526213))

Etapa berri honetan egokitu egin behar da Euskadiko berrikuntza-estrategia, ekonomian eta gizartean egin dezakeen ekarpena areagotzeko. Horrela, baliabideak errazago biltzen dira

Euskadin dauden eta egon daitezkeen produkzio-gaitasunekin sinergia argiak dituzten ikerkuntza-arloetan. Horrek esan nahi du eskariaren beharrak (pull politika) bat etortzea zientzia- eta teknologia-eskaintzaren aurrerakuntzek eragindako beharrekin (push politika).

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea berrantolatzea, antolatzea eta eguneratzea da estrategia berri hori zabaltzeko palanka nagusietako bat. Prozesu horren helburua, jasotako esperientzian oinarrituta, eragile bakoitzaren helburuak eta posizionamendua definitzea da, I+G+Bko balio-kateko espezializazioaren, bikaintasunaren eta egoeraren arabera. Hori guztia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen emaitzetako efizientzia eta orientazioa handitzeko eta EAEko produkzio-sareari eta sare sozialari egin diezaiokeen ekarpena hobetzeko helburuarekin, lankidetzaren eta osagarritasunaren bidez.

Aurreko guztia kontuan izanik, beharrezkotzat jo da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen antolamendu berria arautzea, hau da, eragileen tipologiak definitzea eta Sare horretako Eragileen Erregistro Publiko berri bat osatzea.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren eta Osasuneko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2015eko ekainaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREA

1 artikulua.– Xedea.

Honako hau Dekretu honen xedea:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea arautzea, oinarritzat harturik egungo zientzia-, teknologia eta berrikuntza-estrategia, 2020 arteko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Planean jaso, eta, zehazkiago, eragile bakoitzak I+G+b arloan duen espezializazioa, bikaintasuna eta kokapena zehazten duen berrantolamendu-prozesuan, bai eta espero diren emaitzetan ere.

Halaber, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistro Publikoa sortzea, sare horretako erakundeak identifikatzeko eta ezagutarazteko.

2. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea eta Antolamendu Ardatzak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-erakundeen multzo bat da: sarean lan eginez I+G+b orekatuko jardueren mix bat garatzen dute, ikerkuntza espezializatu eta bikaina egiten dute, eta horrek eragina du Euskadiko aberastasunean eta ongizatean.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen antolamenduak harreman-eredu baten baitako hiru ardatz ditu. Lehenengo bi ardatzek eragile-tipologia bakoitzak mapan duen kokapen zehatza zehazten dute; hirugarrenak, berriz, eragile bakoitzarentzat ezarritako helburuen betetze-maila islatzen du:

– 1. ardatza: I+Gren balio-kateko posizionamendua: Erreferentziatzat «I+G+Brako Estatuko Laguntzen Erkidegoko Esparrua» hartuta, I+Gren balio-katea hiru ikerkuntza-moten arabera egituratzen da: oinarritzko ikerketa, ikerketa industrial eta garapen esperimental. Eragile bakoitzaren

I+Gren jardueraren pisuak («jardueren misto» gisa definitutakoak) ikerketa mota bakoitzean euskal I+G+Bren balio-kateak duen posizionamendua zehaztuko du.

– 2. ardatza: EAEn lehentasuna duten ikerkuntza-arloetako espezializazio-maila Ikerkuntza-arlo zehatz bateko I+G jarduerak zehazten du eragile horren espezializazio-maila. RIS3 Euskadi estrategian ezarritako eta Euskadiko ZTBP 2020n jasotako ikerkuntza-arloei begira neurtuko da eragileen espezializazioa.

– 3. ardatza: Ikerkuntzaren bikaintasuna: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile bakoitzari ikerkuntza mota bakoitzean eskatzen zaion emaitzen betetze-maila da bikaintasuna, hau da, argitalpenak, patenteak, oinarri teknologikoko enpresa berriak eta abar.

Hiru ardatz horiek harreman-eredu baten baitan gauzatzen dira, eta hortik sortzen da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen eta ingurune globalaren arteko erlazioa, eragileek jarduten duten hainbat dimentsio kontuan hartuz: lankidetzak, ezagutzaren transferentzia eta, batez ere, Europako Ikerkuntza Esparruan parte-hartzea (batik bat 2020 Horizontea izeneko programaren bidez).

3.– Aipatutako hiru ardatzak oinarritzat hartuta, Dekretu honen III. Eranskinean dago Aginte Taula, Dekretu honetako 3. eta 5. artikuluetan definitutako eragile-tipologiatzat.

Taula horrek bi erabilera ditu: batetik, eragile-kategoria bakoitzaren jarduna karakterizatzen du ziurtatze-prozesuari begira, eta, bestetik, eragileek 2020an iritsi beharreko adierazleak, pisuak eta helmugak finkatzen ditu, hala badagokio. Aginte Taula hori eguneratuko da teknologiako eta berrikuntzako Sail eskuduneko sailburu titularraren Aginduz, Eusko Jaurlaritzako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-estrategiako helburuen arabera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea funtsezkoa da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemari, eta eragile bereziek eta ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-erakundeek osatzen dute. Azken horiek ere hainbat tipologiatan sailkatzen dira, kontuan hartuz beren xedea, egiten dituzten jarduerak eta betetzen dituzten baldintzak. Erakunde horiek denetariko I+G+b jarduerak egin behar dituzte, osotasuna integratzeko eta proiektu integralen bidezko lankidetzak bultzatzeko, Sistemaren baitako konexioak ezartzeko formula gisa.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko partaide izango dira:

a) Eragile Bereziak.

Eusko Jaurlaritzaren ekimenez sortu dira, hari laguntza emateko zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloko politika berriak diseinatzen, ezartzen eta sustatzen.

b) Unibertsitateen Ikerkuntza Egiturak.

Unibertsitateen mendeko zentroak, departamentuak, atalak, ikerkuntza-taldeak, EUS Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateei atxikitako zentroak edo bestelako egiturak dira, egiteko nagusia jakintza zientifikoa sortzea dutenak baina I+G+b balio-kate guztian jarduerak aurrera eramanez ere egiten dituztenak.

c) Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroak.

Euskadirentzat interes zientifikoa duten arloetan aritzen dira.

d) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Ezagutarazteko Eragileak.

Egiteko nagusia dute gizarteari jakintza ezagutaraztea eta jakintza trukaztea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileen artean.

e) Ikerketa Sanitarioko Zentro.

Nukleoa osasun-erakunde batean edo gehiagotan duten ikerketa- eta berrikuntza-erakundeak dira Ikerketa Sanitarioko Zentroak, eta haien eginkizun nagusia da ikerketa traslazonala egitea.

f) I+G Sanitarioko Erakundeak.

Osasun arloko ikerkuntza (biomedikoa, epidemiologikoa, osasun publikoa eta/edo osasun-zerbitzuak) eta berrikuntzan aritzen dira, bai eta haiek sustatzen eta kudeatzen ere.

g) Teknologia Zentroak.

Gehienbat, teknologia sortu, garatu eta transferitzen diote EAEko enpresa-ehunari. Teknologia Zentroak era honetan sailkatzen dira:

1.– Foku Anitzeko Teknologia Zentroak.

Hainbat teknologiatan eta ekonomiaren edo enpresen hainbat sektoretan egiten dituzte beren I+G jarduerak.

2.– Teknologia Zentro Sektorialak.

Ekonomiaren edo enpresen sektore jakin batean egiten dituzte I+G jarduerak.

h) Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroak (IKZ).

Lankidetzako eta bikaintasuneko ikerkuntza egiten dute EAERentzat estrategikoa den zientziaren eta teknologiaren arlo batean.

i) Enpresetako I+G Unitateak.

Garapen esperimentalean aritzen dira eta beren enpresa titularren I+G beharrak asetzen dituzte

j) Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileak.

Bitartekaritza-lanak egiten dituzte enpresek eskainitako eta eskatutako teknologiaren artean (batez ere ETE mailan), I+G osoan zehar.

4. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratzea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean eragile gisa integratu ahal izateko, Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzako Erakundeek egiaztatuta egon behar dute Dekretu honetako III. kapituluari jarraituz, eta aurrez bete behar dituzte arautegi honetako baldintza orokorrak nahiz zehatzak.

## II. KAPITULUA

### ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREKO ERAGILEEN KARAKTERIZAZIOA

5. artikulua.– Eragile Bereziak.

Eusko Jaurlaritzaren ekimenez sortu dira zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politika berriak diseinatu, ezarri eta sustatzeko; adibidez, talentua erakartzea edo berrikuntza ez-teknologikoa bultzatzea.

Bereziak dira bakarrak direlako: funtzio eta helburu guztiz bereziak dituztenez, ezin dira sartu kategorian jakin bakar batean, ez eta ondoren datozenetako batean ere.

### 6. artikulua.– Unibertsitateen Ikerkuntza Egiturak.

Beren xedea eta jarduerak arautzen ditu 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak.

Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarrizko elementua dira; izan ere, Euskal Unibertsitate Sistemako 3/2004 Legeak emandako funtzio nagusiaren arabera, bere jarduerak I+G+Bko balio-kate osoa hartzen du.

#### 1.– Xedea.

Irakaskuntza ez ezik, ikerkuntza oinarrizkoa da unibertsitateko jardunean. Unibertsitateko ikerkuntza-lanak bikaintasunekoak izan behar du, eta bere barruan joango da, gainera, jakintza eta teknologia zabaltzea, eta Euskadiko gizartearen eta bertan bizi diren pertsonen gizarte-, kultura- eta ekonomia-interesetara moldatzea.

Unibertsitateen Ikerkuntza Egiturek lankidetzan eta koordinaturik aritu behar dute gainerako eragileekin, EAEko ahalmenak optimizatzeko.

#### 2.– Jarduerak.

a) Ikertzaile berriak ikertzen jartzea.

b) Askatasunez ikertzea, nazioarteko lege edo hitzarmenak, eta zientzia-komunitatearen kode edo arau deontologikoak beste mugarik gabe.

c) Ekoizpen-sistemarekiko lotura finkatzea, bi helbururekin: unibertsitateetako jakintza eta zientzia- eta teknologia-berrikuntza ezagutaraztea, eta baliabide pribatuak bideratzea ikerkuntza-lanetara.

d) Enpresak eta zientzia- nahiz teknologia-parkeak sortzea edo sortzen laguntzea. Irakasleak eta ikertzaileak hango jardueretan aritu ahal izango dira, helburu hauekin:

1) Unibertsitate-ikerkuntza sustatzea eta haren emaitzak ezagutaraztea.

2) Kalitatearen eta berrikuntzaren kultura sustatzea enpresen artean.

3) Teknologia eta berrikuntza perfekziora eramanez, enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzea.

e) Berrikuntza-jarduerak egiten dituzten erakunde guztiekin lankidetzan jardutea. Posible izango da azpiegiturak partekatzea, langileak trukitzea, ikerlan bateratuak egitea, edo helburuak lortzeko egokia den beste edozein harreman izatea.

### 7. artikulua.– Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroak.

#### 1.– Xedea.

Euskadin egindako zientzia-ikerkuntzaren nazioarteko erreferentzia izan nahi dute. Zientzia-ikerkuntzaren munduko mapan Euskadi kokatzea bilatzen dute, batik bat, herrialdearentzat estrategikoak diren ezagutza-arloetan.

Zentro hauek bat etorri behar dute ZTBP helburuekin, bai eta Eusko Jaurlaritzaren zientzia-politikako lehentasunekin, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren bidez enpresak lehiakorrago egiteko eta euskal gizartea garatzeko.

Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroek lankidetzan eta koordinaturik aritu behar dute gainerako eragileekin, EAEko ahalmenak optimizatzen.

### 2.– Jarduerak.

a) Abangoardiako jakintza berria sortzea etorkizuna duten sektoreetan eta/edo herrialderako estrategikoak diren esparruetan, ikuspegi sozialetik.

b) Ibilbide luzeko ikerkuntza-programa bat edukitzea, diziplina anitzeko eta elkarren mendeko ikerkuntza-lerroz osatua.

c) Ikerkuntza-taldeak sortzea, bikaintasunaren arabera ikerkuntza-lerroak gara ditzaten.

d) Zientzia eta teknikaren arloko prestakuntza emateko gaitasuna frogatzea eta Unibertsitatearen osagarri izatea goi-mailako prestakuntzan.

e) Ikerkuntzaren emaitzak goieneko mailan zabaltzea eta egindako jarduerak gizartean ezagutaraztea, gizarteak ere jarduera horietan parte har dezan hainbat bidetatik.

f) Nazioarteko ikertzaile ospetsuak erakartzea.

g) Jarduerak garatu ahal izateko baliabide ekonomikoak erakartzea.

## 8. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Ezagutarazteko Eragileak.

### 1.– Xedea.

Euskadiko ekonomia eta gizartea garatzen laguntzea, gizarteak jakintza ezagutaraz dezan bultzatuz, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileen artean jakintza transferitzea sustatuz. Zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-jardunari laguntzen diote; besteak beste, zientziaren eta teknologiaren arloan euskararen erabilera normalizatzen, zientziaren balioak indartzen, zientziaren kultura sustatzen, eta zientziak eta teknologiak gizartearekin duten harremana bultzatzen.

### 2.– Jarduerak.

Egin beharreko jarduera nagusiak, berriz, honako hauek dira:

a) Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren kultura ezagutaraztea, zientzia-jardunaren balio sozialak eta ekonomikoak sustatzeko.

b) Zientzia eta teknologia ezagutarazteko sareetan parte hartzea, masako hedabideak erabiliz.

c) Sormena eta zientziarako eta teknologiarako zaletasuna sustatzea.

## 9. artikulua.– Ikerketa Sanitarioko Zentroak.

### 1.– Zeregina:

Kalitate handieneko ikerketa traslazonala egitea. Horretarako, ezagutza sortuko eta aplikatuko da, eta Euskadiko Sistema Sanitarioari, pazienteari eta, oro har, gizarteari azalduko zaizkio zerbitzu sanitarioetako nahiz osasun publikoko oinarrizko ikerketako, ikerketa klinikoko eta epidemiologikoko emaitzak. Gainerako eragile zientifiko/teknologikoekin eta enpresekin lankidetzan

aritu dira institutu hauek, eta teknologia medikoko eta sanitarioko berrikuntzaren alde egingo dute. Emaizta horiek Euskadiko Sistema Sanitarioaren kalitatea hobetuko dute, eta EAEn aberastasuna sortzen lagunduko.

Ikerketa Sanitarioko Zentroek laguntzen dute sistema sanitarioaren programak eta politikak zientifikoki oinarritzen.

Gainerako eragileekin elkarlanean eta koordinatuta aritzeko konpromisoarekin jardun behar dute Ikerketa Sanitarioko Zentroek, EAEn existitzen diren gaitasunak optimizatzeko.

2.– Jarduerak:

- a) Ezagutza sortzea eta aplikatzea osasuneko ikerketa translazionalaren bidez.
- b) I+G+b emaitzak ustiatzea bai merkataritzan bai Euskadiko Sistema Sanitarioan inplementatuta.
- c) Unibertsitateko graduoko eta graduondoko prestakuntzan laguntzea eta unibertsitate-prestakuntzarekiko osagarriak diren prestakuntza-jarduerak egitea.
- d) Ezagutza zabaltzea eta transferitzea.

10. artikulua.– I+G Sanitarioko Erakundeak.

1.– Zeregina:

Osasuneko ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak egitea, baita horiek sustatzeko eta kudeatzeko jarduerak ere. Horrela, bestelako eragile, enpresa eta sektoreekiko lankidetzaz erraztuko da, Euskadiko aberastasun-sorkuntzari eta garapen sozioekonomikoari laguntzeko xedez.

I+G Sanitarioko Erakundeek gainerako eragileekin elkarlanean eta koordinatuta aritzeko konpromisoaz jardun behar dute EAEn existitzen diren gaitasunak optimizatzeko.

2.– Jarduerak:

I+G Sanitarioko Erakundeek jarduera hauetako batzuk edo guztiak egingo dituzte:

- a) Ikerketa eta berrikuntza sustatzea.
- b) Ezagutza sortzea eta aplikatzea oinarritzko ikerketaren, ikerketa industrialaren eta osasuneko garapen esperimentalaren bidez.
- c) I+G+b emaitzak ustiatzea.
- d) Ezagutza gizarterantz zabaltzea eta transferitzea.

11. artikulua.– Teknologia Zentroak.

1.– Foku Anitzeko Teknologia Zentroak.

a) Xedea:

Teknologia eta berrikuntza sustatzea EAeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko, teknologia multiteknologiko eta/edo multisektorial propioa sortuz eta garatuz eta transferentzia-jarduerak eginez, Euskadiko lehentasunekin bat datozen ikerkuntza-arloetan.

Foku Anitzeko Teknologia Zentroek lankidetzan eta koordinaturik jardun behar dute gainerako eragileekin, EAeko gaitasunak hobetzeko eta elkarrekin osatzeko zientzia- eta teknologia-eskaintza integral eta bikain bat, euskal ekonomiaren eboluzioa sustatuz eta bere balio erantsia areagotuz.

b) Jarduerak:

1) Teknologia multiteknologiko propioa sortzea eta garatzea, ekonomiako eta enpresetako sektore bati edo batzuei begira, I+G gehiena industria-ikerikuntzan bilduz, baina I+G+b osora zabalduz.

2) Emaitzen ustiapen komertziala, batez ere, patenteak eta oinarri teknologikoko enpresak sortuz.

3) Jakintza eta teknologia enpresara eta gizartera zabaltzea eta transferitzea.

2.– Teknologia Zentro Sektorialak.

a) Xedea:

Teknologia eta berrikuntza sustatzea EAeko enpresak lehiakorrago egiteko, enpresa-sektore zehatz baterako teknologia propioa sortuz eta garatuz, eta transferentzia-lanak eginez Euskadiren lehentasunekin bat datozen ikerikuntza-arloetan.

Teknologia Zentro Sektorialek lankidetzan eta koordinaturik jardun behar dute gainerako eragileekin, EAeko gaitasunak hobetzeko eta elkarrekin osatzeko zientzia- eta teknologia-eskaintza integral eta bikain bat, euskal ekonomiaren eboluzioa sustatuz eta bere balio erantsia areagotuz.

b) Jarduerak:

1) Teknologia propioa sortzea eta garatzea, enpresa-sektore zehatz bati begira, I+G industria-ikerikuntzara bideratuz, baina I+G+b osoa kontuan hartuta.

2) Emaitzen ustiapen komertziala, batez ere, patenteak eta oinarri teknologikoko enpresak sortuz.

3) Jakintza eta teknologia batez ere enpresara zabaltzea eta transferitzea.

12. artikulua.– Ikerikuntza Kooperatiboko Zentroak (IKZ).

1.– Xedea.

Euskadi European erreferente izatea zientziaren eta teknologiaren arlo estrategikoetan, goraka doazen sektoreei lagunduz eta erabilera generikoko teknologiak sustatuz EAeko enpresak dibertsifikatzeko eta lehiakorrago egiteko sektore tradizionaletan.

Ikerikuntza Kooperatibako Zentroek lankidetzan eta koordinaturik jardun behar dute gainerako eragileekin, EAeko gaitasunak hobetzeko eta elkarrekin osatzeko zientzia- eta teknologia-eskaintza integral eta bikain bat, euskal ekonomiaren eboluzioa sustatuz eta bere balio erantsia areagotuz.

2.– Jarduerak.

Ikerikuntza Kooperatibako Zentroek oinarrizko ikerikuntza bikaina egiten jardungo dute, baina I+G+b osoa kontuan hartuz, baita ikerikuntzaren emaitzen ustiapen komertziala ere.

Honako hauek izango dira jarduera nagusiak:

a) Merkaturantz bideratutako elkarrekiko ikerikuntza, EAerako estrategikoa den zientziaren eta teknologiaren arlo batean. Pertsonal propioa, euskal enpresetakoa, ikerikuntza-zentroetakoa eta unibertsitatekoa integratuko da, eta sustatuko dira bai ikertzaileen mugikortasuna, bai elkarrekiko argitalpenak eta patenteak.



b) Emaizten ustiapen komertziala, patenteak eta oinarri teknologikoko enpresak sortuz.

c) Eragileentzako eta industriarentzako goi-mailako prestakuntza, Unibertsitateek eskaintzen dutena osatuz.

13. artikulua.– Enpresetako I+G Unitateak.

1.– Xedea.

Erakundeko enpresa titularren artean teknologia eta berrikuntza sustatzea, lehiakortasuna hobetzeko.

Enpresetako I+G Unitateek lankidetzan eta koordinaturik jardun behar dute gainerako eragileekin, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea eraginkorrago egiteko eta elkarrekin osatzeko zientzia- eta teknologia-eskaintza integral eta bikain bat, euskal ekonomiaren eboluzioa sustatuz eta bere balio erantsia areagotuz.

2.– Jarduerak.

Eragile hauen funtsezko zeregina I+G proiektuak egitea da, unitate horietako helburuen arabera ezarritako lehentasunekin bat.

Garatu beharreko funtsezko jarduerak hauek dira:

a) Teknologia sortzea eta garatzea, I+G jardun nagusia garapen esperimentalean eginez, baina I+G+b osoa kontuan hartuta.

b) Emaizten ustiapen komertziala egitea patenteak sortuz, Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak sortuz eta produktu/prozesu berriak garatuz.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko nahiz nazioarteko zientzia- eta teknologia-eragileekin lankidetzan jardutea.

14. artikulua.– Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileak.

1.– Xedea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen ikerkuntza merkatura bideratzen dela bermatzea (oinarrizko ikerkuntzatik hasi eta garapen esperimentaleraino), eta Euskadin egindako jakintzaren arloko inbertsioen balioa maximizatzea.

Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileek lankidetzan eta koordinaturik jardun behar dute gainerako eragileekin, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko efizientzia hobetzeko; horrela, zientzia- eta teknologia-eskaintza integral eta bikain bat osatu, Euskadiko ekonomiaren eboluzioa sustatu eta bere balio erantsia gehituko da.

2.– Jarduerak.

Egin beharreko jarduera nagusiak, berriz, honako hauek izango dira:

a) Zientzia eta teknologia arloko eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekaritza egitea, jarduera hauetakoren baten bidez:

1) Enpresei zientziari eta teknologiari buruzko aholkuak emanda.

2) Beharrianak koordinatzea eta integratzea eskaintzatik nahiz eskaritik (edo bietatik), interesak eta ahalmenak I+G inguruan biltzen saiatuz.

- 3) Zientzia- eta teknologia-eskaintza biltzea, enpresek eskurago izan dezaten.
- 4) Nazioartean aurkitutako teknologia aurreratuak transferitzeko aukerak aurkitzea eta jakinaraztea.
- 5) Patenteak kudeatzea (erostea, saltzea, etab.).
- b) I+G+b proiektuak eta teknologia aurreratuak ekimen berriak sustatzea eta haietan parte hartzea, lankidetzan jardunez enpresekin (batez ere, ETEekin) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileekin.
- c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean enpresentzat sortutako jakintza eza-gutaraztea.

### III. KAPITULUA

#### ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREKO ERAGILEEN BALDINTZA OROKORRAK ETA ZEHATZAK

##### 15. artikulua.– Baldintza Orokorrak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zientzia eta teknologia eragile izatearen egiaztapena lortzeko, erakunde eskatzaileek baldintza orokor hauek bete beharko dituzte. Zehazki, unibertsitateetan integratutako eragileen kasuan, unibertsitate eskatzaileek bete beharko dituzte baldintzak, beren nortasun juridikoaren arabera, eta, EUS Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateetara atxikitako zentroen kasuan, zentro horiek legez eratuta egon beharko dute eta nortasun juridiko propioa eta bereizia izan beharko dute, artikuluko honen 1 zenbakian zehazten den eran.

1.– Legez eraturik egotea eta nortasun juridiko propioa edukitzea (publikoak nahiz pribatuak izan daitezke).

2.– Irabazi asmorik ez dutela jaso behar dute beren estatutuetan, bai eta hau ere:

a) Lege-erreserbak eta borondatezko erreserbak ordaindu ondoren, ekitaldian etekin likidoak egonez gero, erakundearen helburu sozialera soilik bideratuko dira, eta ezingo dira kideen artean banatu, ez eta irabazi asmorik eza urratu ere.

b) Erakundea desagertu edo deseginez gero (eta bere nortasun juridikoak uzten badu), likidaziotik lortutako aktiboa erakundea eratu zen helburu sozialera soilik bideratuko da.

c) Ordezkaritza-organoetako kide diren eta ordainsariak jasotzen dituztenek ez dituzte jasoko funts eta diru-laguntza publikoaren kargura. Hala ere, estatutuetakako terminoen eta baldintzen arabera, ordainsari egoki bat jaso ahal dute ordezkaritza-organoko kide gisa dagozkien funtzioez bestelako zerbitzuak egiteagatik.

3.– EAEn egotea eta bertan egitea beren jardueraren nagusia.

4.– Batez ere merkatuko gabeziaren bat dagoen eremu batean jardutea, eta, beraz, herri-administrazioek hornitu, arautu edo finantzatu behar dituzte, zati batean behintzat. «Merkatuko gabezia» bat dago merkatua ez bada heltzen efizientzia ekonomikora kanpoko esku-hartzerik gabe. Halakoetan, esku-hartze publikoek (estatuko diru-laguntzek barne) merkatuaren egoera hobetu dezakete baliabideen prezioei, produkzioari eta erabilerari dagokienez (ikusitako I+G+b arloko Estatuko Diru-laguntzei buruzko Erkidego Esparrua, 2014/C 198/01).

5.– Helburu nagusiak izatea oinarrizko ikerkuntza edo ikerkuntza translazionala, industria-ikerkuntza edo garapen esperimentalak edo sortutako jakintza zabal ezagutaraztea eta transferitzea.

6.– Helburuak bete ahal izateko, eskura izatea antolamendu egokia, baliabide pertsonalak (behar adinako eskumenekin eta gaitasunekin), eta aktibo material propioak edo utzitakoak. Aktiboak eta pertsonen eskuragarritasuna efektiboa eta behar den artekoa izatea bermatuko da.

7.– Kudeaketa efikaza eta efizientea garatzea, baliabideak ezin hobeto erabiltzeko.

8.– Kontabilitateko sarreretan eta gastuetan, jarduera ekonomikoa eta ez-ekonomikoa bereiztea, hala badagokio. Erakundeak jarduera ekonomikoa eta ez-ekonomikoa egiten baditu, bereizita jaso behar dira finantzaketa, kostuak eta diru-sarrerak.

9.– Ekonomia-jardueraren barruan, I+G+b arloko estatuko diru-laguntzei buruzko Erkidego Esparruko baldintzak betetzea, merkatuko baldintza normaletan.

10.– Egiaztapen-eskabidearen gutxienez aurreko urtean jardunean aritzea eta helburuak eraginkortasunez betetzea. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan urtebete altan ez daramaten eragileek beren aurreko jarduna egiaztatzen duen memoria bat aurkeztu behar dute.

11.– Sexuagatiko inolako bereizkeriarik ez egitea 4/2005 Legearen ondorioetarako.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratu ahal diren erakundeek, baldintza orokor hauez gain, egiaztatzea eskatzen duten kategoriako baldintzak izango dituzte.

16. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen baldintza zehatzak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratzen diren erakundeek eragile-tipologia bakoitzaren xedea eta jarduerak bete behar dituzte, Dekretu honen aurreko kapituluaren arabera. Artikulu honetako baldintza zehatzak ere bete behar dituzte, hau da, egitura-, finantzaketa-, kudeaketa- eta gobernantza-ereduak edukitzea, bai eta jarraian adierazten den Plan Estrategiko bat izatea ere.

1.– Eragile Bereziak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragile Berezi izan daitezke Eusko Jaurlaritzak sustatuta jaio eta betekizun zehatz bat garatzen dutenak zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politiken baitan.

Eragile Bereziak 2020 arteko Plan Estrategikoa aurkeztu behar dute, zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politikarekin bat datozela bermatuz.

Dekretu honen V. eranskinean dator hura argitaratutako unean dauden Eragile Berezien zerrenda.

2.– Unibertsitateen Ikerkuntza Egiturak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratu ahal dira unibertsitate publiko eta pribatuen ikerkuntza-egiturak, EAEn kokatuta badaude eta jarduera nagusia bertan garatzen badute.

EUS Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateetara atxikitako zentroek, berriz, atxikipen-hitzarmena aurkeztu beharko dute.

Unibertsitateek beren ikerkuntza-egituren zerrenda eman behar dute, informazioa izateko baino ez.

### 3.– Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroak.

Bikaintasuneko zientzia-ikerkuntzako eragile bat eduki beharretik sortutako Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratu ahal dira, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako beharrak aseko dituzte eta bat egingo dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Planeko helburuekin, bai eta Sail eskudunaren zientzia-politika garatzeko lehentasunekin ere.

Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroak EAEn egon eta nortasun juridiko propioa izango dute, EAEn egingo dute beren jardura nagusia, ez dute irabazi asmorik izango, pribatuak edo pribatuak izango dira, eta oinarrizko eta bikaintasuneko ikerkuntza egin eta sustatuko dute EAerako zientzia- eta gizarte-interesekoak diren arloetan.

Era berean, nazioarteko erreferentzia-zentroak izan behar dute beren ikerkuntza-arloan. Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentro gisa egiaztatzeko, jarraian ezarritako baldintza zehatzez gain, nazioarteko estandarrik zorrotzenen arabera ebaluazio bat ere gainditu behar dute.

Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroek lehen mailako zuzendaritza zientifikoko eta ikerkuntzako talde bat izan behar dute, kualifikazio handiko kudeaketa-talde bat, eta nazioarteko Zientzia Aholkularitzako Batzorde bat.

#### a) Egitura, finantzaketa eta gobernantza:

Erakundeko plan estrategikoen eta operatiboen arabera definituta eta horiei lotuta egongo dira. Plan horiek zentroetako gobernu-organoei onartu behar dituzte, eta organo horietan hezkuntza-administrazioak parte hartuko du.

Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroetan pertsona publiko nahiz pribatuek (fisikoei edo juridikoei) hartuko dute parte, eta Zentroko kudeaketan eta funtzionamenduan jardungo dute. Hala ere, zentroetako jardura ez da izango pertsona edo erakunde elkartuentzat edo laguntzaileentzat bakarrik, eta irekita egongo dira EAeko bestelako edozein erakunde publiko edo pribatuentzat ere.

#### b) Plan Estrategikoa:

Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentro bakoitzak Plan Estrategiko bat egingo du, eta zientzia-estrategiarekin bat datorrela bermatuko da, dagozkion adierazleak jarraituta. Plan Estrategikoko edukien gidoia dator Dekretu honetako I. eranskinean.

### 4.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Ezagutarazteko Eragileak.

#### a) Egitura, finantzaketa eta gobernantza:

Zientzia eta Teknologia Ezagutarazteko Eragileen plantilla eta finantzaketa haien ezaugarrietatik egokiena dena izango da. Nolanahi ere, azken 5 urteetan zientzia eta teknologia modu jarraituan ezagutarazten aritutakoak izan behar dute, hartzaileen eta mezuaren arabera hedabideak erabiliz.

Zientzia eta Teknologia Ezagutarazteko Eragileak hainbat erakunde mota izan daitezkeenez, beren ezaugarrietara gehien egokitzen den gobernantza- eta kudeaketa-organoen osatura izango dute.

#### b) Plan Estrategikoa:

Zientzia eta Teknologia Ezagutarazteko Eragileek 2020ra arteko Plan Estrategiko bat izan behar dute.

#### 5.– Ikerketa Sanitarioko Zentroak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean Ikerketa Sanitarioko Zentro gisa integratu ahal izango dira Osasun Sailaren eskumeneko arloetako lehentasunekin eta politikekin bat egiten duten eta ikerketako eragile bat izateko beharrezanetik sortzen diren erakundeak. Eragile horrek, eredu zehatz honen bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren beharrezan beteko ditu Euskadiko Sistema Sanitariorako lehentasunezko iritzitako esparruetan.

Ikerketa Sanitarioko Zentroak EAEn egongo dira kokatuta, eta zentro sanitario batean edo gehiagotan izango dute nukleoa, betiere, ezagutza sortzeko eta/edo teknologia garatzeko jarduerak egiten badituzte, baita izaera orokorrarekin ezagutza eta teknologia hori transferitzeko eta hedatzeko jarduerak egiten badituzte ere, ikerketa translazionalaren ikuspegitik.

##### a) Egitura, finantzaketa eta gobernantza:

Ikerketa Sanitarioko Zentroetako plan estrategikoen eta operatiboen arabera definituta eta plan horiei lotuta egongo dira egitura, finantzaketa eta gobernantza. Plan horiek zentroetako gobernu-organismoek onartu beharko dituzte, zeinetan parte hartzen baitu administrazio sanitarioak. Barne Araubiderako Erregelamendu komun batek zuzenduko ditu planok.

##### b) Plan estrategikoa eta adierazleak:

Plan estrategiko bat eta emaitza zientifikoen, osasunaren hobekuntzari aplikatu dakizkiokeen emaitzen eta emaitza ekonomikoen adierazle batzuk izango dituzte Ikerketa Sanitarioko Zentroek. Dekretu honen II. eranskinean zehazten dira gutxienezko adierazleak.

#### 6.– I+G Sanitarioko Erakundeak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean Ikerketa eta Garapen Sanitarioko Erakunde gisa (I+G) integratu ahal izango dira ikerketa sanitarioko eragile bat izateko beharrezanetik sortzen diren erakundeak. Eragile horrek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren beharrezan beteko ditu Euskadiko Sistema Sanitariorako lehentasunezko iritzitako esparruetan.

Ikerketa eta Garapen (I+G) Sanitarioko Erakundeek nortasun juridiko propioa izango dute, eta erakunde horietako estatutu sozialek espresuki jasoko dituzte haien helburuak eta/edo jarduerak. EAEn egongo dira kokatuta, eta bertan egin beharko dituzte osasuneko ezagutza sustatzeko, sortzeko eta/edo aplikatzeko jarduerak, baita ezagutza horren transferentzia eta hedapena ere.

##### a) Egitura, finantzaketa eta gobernantza:

Egitura, finantzaketa eta gobernantza erakundeko plan estrategikoen eta operatiboen arabera definituta eta horiei lotuta egongo dira. Plan horiek zentroetako gobernu-organismoek onartu beharko dituzte.

##### b) Jarduketa-plana eta adierazleak:

I+G Sanitarioko Erakundeek beren jarduerak zehazteko jarduketa-planak izango dituzte, eta beste eragile batzuen eginkizunarekin eta helburuekin koordinatuta eta Zientzia-Teknologia-Enpresa-Gizartea Sistemari integratzeko konpromisoarekin, sustatuko dute estrategia orokorrekin bat egitea dagozkien adierazle jarraipena eginda. Adierazle horiek erakunde horietako gobernu-organismoek onartuko dituzte.

#### 7.– Teknologia Zentroak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartzen diren teknologia-zentroek eragile-tipologia bakoitzarentzat definitutako misioa eta jarduerak bete beharko dituzte, dekretu

honetako aurreko kapituluan ezarritakoari jarraikiz. Gainera, artikulua honetako betekizun espezifikoak ere bete beharko dituzte, alegia, egiturako, finantzaketako, gobernamentuak eta kudeaketako ereduak izateari dagokionez jarritako betekizunak, baita, jarraian adierazten den moduan, 2020. urtera arteko jarduketan plan estrategiko bat izateari dagokionez jarritakoak ere.

### a) Foku Anitzeko Teknologia Zentroak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean sartu ahal izango dira, Foku Anitzeko Teknologia Zentro gisa sartu ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemak Euskadira finkatutako ikerketa-lehentasunekin bat datozen esparruetan teknologia propioa sortzeko eta garatzeko beharra beteko duen ikerketa eta garapen eragile bat edukitzeko premiari erantzunez sortzen diren erakundeak.

#### 1) Egitura.

Teknologia Zentroek eduki beharreko gutxieneko plantilla eta titulazio-baldintzak agertzen dira Dekretu honen III. eranskinean. Bertan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

#### 2) Finantzaketa.

I. Zentro pribatuetan, lehiarik gabeko finantzaketa publikoak ezin du gainditu Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako zentroko diru-sarrerak guztien ehunekoak. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

II.– Zentro pribatuetan, kontratupeko I+G egitetik lortutako diru-sarrerak Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako gutxienekoetara iritsi behar dute. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

III.– Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako bezero-kopuru minimoa izango dute. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

#### 3) Gobernantza.

I.– Izaera pribatuko zentroek beren gobernu-organismoetan enpresa-ordezkaritza bat izango dute, dekretu honetako III. eranskinean zehaztu den heinekoa. Eranskin horretan, aginte-aulak eta betekizun kuantitatiboen balioak ere argitaratu dira. Organo horien egiteko nagusia plan estrategikoa onartzea izango da, baita ikerketa-agenda onartzea ere.

II.– Izaera pribatuko zentroek, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkaritza ez badute beren gobernu-organismoetan, jarraipen-batzorde bat eratu beharko dute, eta hor, zentroaren gobernantza-organismoak ez ezik, sail hori ere ordezkatuta egongo da. Zentroa Euskadirentzat ezarri diren ikerketa-lehentasunekin bat datorrela egiaztatzea izango da batzorde horren eginkizunetako bat, bai eta dekretu honetako III. eranskinean aipatutako Aginte Taula betetzen dela egiaztatzea ere.

III.– Teknologia Zentroetan eragina izan dezaketen enpresek (esaterako, gobernu-organoko kide diren horiek) ezin izango dituzte lehentasunez baliatu zentro horien ikerkuntza-gaitasunak, ez eta lehentasunez eskuratu ere ikerkuntzaren emaitzak, Erkidego Esparruko Ikerkuntza Erakundearen definizioan zehaztutakoaren arabera.

#### 4) Kudeaketa:

I+G+b kudeatzeko sistema bat izatea, Dekretu honetako III. eta IV. eranskinetako ezaugarriak betez. Eranskin horietan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

5) 2020 arteko Jarduketa Plana – Aginte Taula.

Zentroek 2020 arteko Jarduketa Plan bat izan behar dute. Plan horretan zehaztuko da zer ekimenen bidez lortuko diren zentro horietako Aginte Taulan 2020rako ezarritako helburuak. Dekretu honetako III. eranskinean datoz bai hainbat adierazle, pisu eta helburu dituen Aginte Taula, bai 2020 arteko Jarduketa Planeko edukiaren gidioa.

b) Teknologia Zentro Sektorialak.

1) Egitura.

Teknologia Zentro Sektorialen gutxienerako plantilla eta titulazio-baldintzak aipatzen dira Dekretu honetako III. eranskinean. Bertan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

2) Finantzaketa.

I.– Zentro pribatuetan, kontratupeko I+G egitetik lortutako diru-sarrerak Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako gutxienerako iritsi behar dute. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

II.– Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako bezero-kopuru minimoa izango dute. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

3) Gobernantza.

I.– Zentro pribatuek enpresa-ordezkaritza bat izan behar dute beren gobernu-organoetan, Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako proportzioan. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak. Organo horien zeregin nagusia Plan Estrategikoa eta Ikerkuntza Agenda onartzea da.

II.– Teknologia Zentro Sektorialetan eragina izan dezaketen enpresek (esaterako, gobernu-organoko kide direlako) ezin dituzte ikerkuntza-gaitasunak eta -emaitzak lehentasunez eskuratu, Erkidego Esparruko Ikerkuntza Erakundearen definizioaren arabera.

4) Kudeaketa.

I+G+b kudeatzeko sistema bat izatea, Dekretu honetako III. eta IV. eranskinetako ezaugarriak betez. Eranskin horietan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

5) 2020 arteko Jarduketa Plana – Aginte Taula.

Zentroek 2020 arteko Jarduketa Plan bat izan behar dute. Plan horretan zehaztuko da zer ekimenen bidez lortuko diren Teknologia Zentro Sektorial bakoitzaren 2020rako helburuak, kontuan hartuz zentro horietako Aginte Taulako emaitza motak. Dekretu honetako III. eranskinean datoz bai hainbat adierazle dituen Aginte Taula, bai 2020 arteko Jarduketa Planeko edukiaren gidioa.

8.– Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ).

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean sartu ahal izango dira, Ikerketa Kooperatiboko Zentro gisa sartu ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean estrategikotzat jotzen diren eta teknologia eta berrikuntzaren arloko eskumenak dituen sailari dagozkion esparruetan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren beharrak beteko dituen ikerketa eta garapen-eragile bat edukitzeko premiari erantzunez sortzen diren erakundeak.

a) Egitura.

Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroen plantilla eta titulazio-baldintzak agertzen dira Dekretu honetako III. eranskinean. Bertan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

b) Finantzaketa.

1) Lehiarik gabeko finantzaketa publikoak ezin du gainditu Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako zentroko diru-sarrera guztien ehunekoak. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

2) Kontratupeko I+G egitetik lortutako diru-sarrerek Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako gutxienekoetara iritsi behar dute. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

3) Dekretu honetako III. eranskinean adierazitako bezero-kopuru minimoa izango du. Eranskin horretan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

c) Gobernantza:

I.– IKZek beren gobernu-organotan enpresen ordezkariak izan beharko dituzte, dekretu honetako III. eranskinean ezartzen den proportzioan. Eranskin horretan, Aginte Taulak eta betekizun kuantitiboen balioak ere argitaratu dira. Ordezkari horiek eta organo horietako gainerako kideek Eusko Jaurlaritzaren estrategiarekin bat egiten dela bermatu beharko dute, Aginte Taularen jarraipena eginda eta ikerketa-agenda definituta.

II.– IFZek, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkariarik ez badute beren gobernu-organotan, jarraipen-batzorde bat eratu beharko dute, eta hor, zentroaren gobernantza-organok ez ezik, sail hori ere ordezkatuta egongo da. Zentroa Euskadirentzat ezarri diren ikerketa-lehentasunekin bat datorrela egiaztatzea izango da batzorde horren eginkizunetako bat, bai eta dekretu honetako III. eranskinean aipatutako Aginte Taula betetzen dela egiaztatzea ere.

III.– IKZetan eragina izan dezaketen enpresek (esaterako, gobernu-organoko kide gisa eragina izan dezaketen horiek) ezin izango dituzte lehentasunez baliatu zentro horien ikerketa-gaitasunak, ezta lehentasunez eskuratu ere ikerketak sortzen dituen emaitzak, Erkidegoko Esparruko Ikerketa Erakundearen definizioaren arabera.

d) Kudeaketa.

Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroek I+G+b kudeatzeko sistema bat eduki behar dute, Dekretu honetako III. eta IV. eranskinetako ezaugarriak dauzkana. Eranskin horietan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

e) 2020 arteko Jarduketa Plana – Aginte Taula:

Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroek 2020 arteko Jarduketa Plan bat izan behar dute. Plan horretan zehaztuko da zer ekimenen bidez lortuko diren zentro horietako Aginte Taulan 2020rako ezarritako helburuak. Dekretu honetako III. eranskinean datoz bai hainbat adierazle, pisu eta helburu dituen Aginte Taula, bai 2020 arteko Jarduketa Planeko edukiaren gidioa.

9.– Enpresetako I+G Unitateak.

a) Egitura:

Enpresetako I+G Unitateek izan beharreko gutxieneko plantilla eta titulazio-baldintzak agertzen dira Dekretu honetako III. eranskinean. Bertan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.



b) Finantzaketa:

Enpresetako I+G Unitateek harreman estua dutenez enpresa-taldeekin edo enpresekin, beren finantzaketa Unitatera eta lotura duen enpresara edo enpresa-taldera gehien egokitzen dena izan ahal da.

c) Gobernantza:

Enpresetako I+G Unitateek harreman estua dutenez enpresa-taldeekin edo enpresekin, beren organoen gobernantza eta kudeaketa Unitatera eta lotura duen enpresara edo enpresa-taldera ondoen egokitzen dena izango da.

d) 2020 arteko Jarduketa Plana – Aginte Taula:

Enpresetako I+G Unitateek 2020 arteko Jarduketa Plan bat izan behar dute. Plan horretan zehaztuko da zer ekimenen bidez lortuko diren Unitate bakoitzaren 2020rako helburuak, kontuan hartuz I+G Unitateetako Aginte Taulako emaitza motak. Dekretu honetako III. eranskinean datoz bai hainbat adierazle dituen Aginte Taula, bai 2020 arteko Jarduketa Planeko edukiaren gidioia.

10.– Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileak.

a) Egitura:

Gutxieneko plantilla eta bezero-kopurua agertzen dira Dekretu honetako III. eranskinean. Bertan datoz Aginte Taulak eta baldintza kuantitatiboen balioak.

b) Finantzaketa:

Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileak hainbat erakunde mota izan daitezkeenez, beren ezaugarrietara gehien egokitzen den finantzaketa-esparrua izango dute.

c) Gobernantza:

Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileak hainbat erakunde mota izan daitezkeenez, beren ezaugarrietara gehien egokitzen den gobernantza- eta kudeaketa-organoen osaera izango dute.

d) 2020 arteko Jarduketa Plana – Aginte Taula:

Eragile horiek 2020 arteko Jarduketa Plan bat izan behar dute. Plan horretan zehaztuko da zer ekimenen bidez lortuko diren Erakunde bakoitzaren 2020rako helburuak, kontuan hartuz zentro horietako Aginte Taulako emaitza motak. Dekretu honetako III. eranskinean datoz bai hainbat adierazle dituen Aginte Taula, bai 2020 arteko Jarduketa Planeko edukiaren gidioia.

## IV. KAPITULUA

### ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREKO ERAGILEAK EGIAZTATZEA

17. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileak egiaztatzea.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratzeko, eragileek egiaztatu egin behar dute.

2.– Eusko Jaurlaritzako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-politikaren aurrean eragile bakoitzak duen kokapena ikusi ondoren, eta eragile mota bakoitzarentzat ezarritako baldintza orokorren eta zehatzen betetze-maila ikusi ondoren erabakiko da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko tipologia zehatz batean egiaztatzen den.

3.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Teknologia eta Estrategiako Zuzendaritzari dagokio egiaztapen-eskabideak jasotzea.

18. artikulua.– Egiaztapen Eskabidea.

1.– Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzako Erakunde interesdunek egiaztapen-eskabidea aurkeztu eta horretarako inprimakiak bete behar dituzte, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren webguneko aplikazio telematikoa erabiliz. Aplikazio horren bidez eskabide-agiria lortu, eta Teknologia eta Estrategiako Zuzendaritzara bidali behar da.

2.– Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta Dekretu honetako kudeaketak elektronikoki egingo dira, Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera, eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenaren arabera.

Eskabidea Internetez soilik eskuratu eta bete ahal da, [http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/contenidos/recurso\\_tecnico/acceso\\_teletramitacion/es\\_def/nb29WebProfesional.html?idioma=eu&seccion=RG&servicio=G](http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/acceso_teletramitacion/es_def/nb29WebProfesional.html?idioma=eu&seccion=RG&servicio=G) helbidean, bertako funtzionalitateen bidez.

Espedienterako sarbidea eta ondorengo izapideak honako helbide honen bidez gauzatuko dira: <http://www.euskadi.net/misgestion.es>.

3.– Pertsona fisikoek zein pertsona juridiko eskatzaileen ordezkariak, Dekretu honen xede diren arloetan eskudun diren Eusko Jaurlaritzako Sailekin dituzten harremanetan, beren hizkuntza erabiltzeko eta arreta hizkuntza horretan, euskaraz edo gaztelaniaz, jasotzeko eskubidea bermatuta izango dute, ahoz edo idatziz.

4.– Eskabidean joango dira, pertsona edo erakunde eskatzailearen baimendutako sinaduraz gain, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio guztia, arautegi honetan xedatutakoaren arabera, eta Administrazioak eskatu ahal duena, Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuari jarraituz.

5.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak egiaztapen-eskabideak bidaliko dizkio Azterketa Talde Teknikoari, aztertu eta ebalua ditzan.

19. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Egiaztapena eskuratzeko eta nortasun juridikoaren arabera, Erakundeak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari aurkeztu behar dizkio, eskabideaz eta gainerako inprimakiez gain (eta Aginte Taularen egoera, dagokien erakundeen kasuan), zerrrenda honetako dokumentuak, bai eta Sail eskudunek eskatutako beste edozein informazio ere.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Erakunde eskatzaile guztiek.

a) IFK/IFZren kopia.

b) Erakundearen osaeraren eta erakundea arautzen duten estatutu eguneratuen eskriturak.

c) Azken 2 ekitaldietako Auditoretza Txostenak eta Urteko Kontuak, eta Urteko Kontuen memoria. Bestela, azken 2 ekitaldietako egoera-balantzea eta emaitzen kontua; erakundeak urtebete bakarrik baldin badarama funtzionatzen, baina, azken ekitaldiko dokumentazioa aurkeztu behar du.

d) Azken 2 ekitaldietako jarduera ekonomikoaren/ez-ekonomikoaren berri, hala dagokionean, honako hauek adieraziz:

– Jarduera ez-ekonomikoaren gastuak.

– Jarduera ez-ekonomikorako jasotako diru-sarrerak (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Estatua, Europa, bestelakoak...)

e) Zientzia eta Teknologia Eragilearen tipologia bakoitzean eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko beste edozein agiri.

2.– Eragile Bereziek.

2020 arteko Plan Estrategikoa.

3.– Unibertsitateek, Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Ezagutarazteko Eragileek.

a) Unibertsitateei dagokienez, ikerketa-egituren zerrenda, izena, sortze-eguna, ikerketa arloak eta osatzen dituzten ikertzaileak adierazita.

b) Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntza Zentroek: hurrengo lau urteetako Plan Estrategikoa. Plan horretako edukien aurkibide bat dago Dekretu honetako I. eranskinean.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Ezagutarazteko Eragileek: 2020 arteko Plan Estrategikoa.

4.– Ikerketa Sanitarioko Zentroek eta I+G Sanitarioko Erakundeek:

a) Ikerketa Sanitarioko Zentroentzat, Ikerketa Sanitarioko Institutu gisa egiaztatzeke agiriaren kopia, ISCIII erakundeak emana (dekretu honen II. eranskineko eskakizunak betetzen direla bermatzen du erakunde honek), edo Institutuko gobernu-organoei onartutako plan-estrategikoa eta jardueraren memoria.

b) I+G Sanitarioko Erakundeentzat, haien gobernu-organoei onartutako jarduerak zehazten dituen jarduketa-plana.

5.– Teknologia Zentroek, Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroek, Enpresetako I+G Unitateek eta Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileek.

a) Eskabidearen aurreko urte naturaleko jardueren memoria. Memoria horretako edukien aurkibide bat dago Dekretu honetako III. eranskinean.

b) Aginte Taulako adierazle bakoitzean ezarritako edo ezarriko diren helburuak lortzeko 2020 arteko Jarduketa Plana. Plan horretako edukien aurkibide bat dago Dekretu honetako III. eranskinean.

c) Eskabidea egin aurreko 2 urte naturaletan hirugarrenekin egindako eragiketen urteko deklarazioaren laburpen-orria (347. eredua).

20. artikulua.– Egiaztapen-eskabideak aztertzea eta ebaluatzea.

1.– Egiaztapen-eskabideen Azterketa Talde Teknikoa. Berriazko Azterketa Talde Tekniko batek aztertuko ditu egiaztapen-eskabide guztiak, Dekretu honetan eragile-tipologia bakoitzarentzat ezarritako baldintzen arabera.

Talde Tekniko hori era honetan osatuko da:

a) Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAko (SPRI) Estrategia, Teknologia eta Berrikuntza Unitatearen talde teknikoaren ordezkari bat, taldea koordinatzeko lanak egingo dituen.

b) Arlo bakoitzean eskumenak dituzten hiru Salletako bakoitzeko talde teknikoaren ordezkari bat.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren Laguntza Estrategikoaren Unitateko Innobasque-ko talde teknikoko ordezkari bat.

d) Ikerbasque – Zientziaren Euskal Fundazioko talde teknikoko ordezkari bat.

e) Dagokion arlo sanitarioko talde teknikoko ordezkari bat.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sail eskuduneko titularraren aginduz talde teknikoaren osaera ezagutaraziko da.

Gizonak adina emakume egoteko ahalegina egingo da, denak gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokikoak.

Talde horrek, gainera, aztertutako gaietako adituen aholkularitza izan dezake.

Azterketako talde tekniko horretako pertsona guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabiltzeko eskubidea bermaturik izango dute beren eginkizunetan.

2.– Azterketa-talde tekniko horrek jasotako eskabide bakoitzaren aurretiazko azterketa eta ebaluazioak egin eta bakoitzaren txostenak egingo ditu.

Aginte Taulako adierazle bakoitzarentzat ezarritako helburuak lortzera bideratutako 2020 arteko Jarduketa Plan bat aurkeztu behar duten Eragileek haren azterketa kualitatibo bat ere aurkeztuko dute.

3.– Eragile bakoitzaren eskabideen ebaluazio-txostenak Ebaluazio Batzordeari bidaliko zaizkio, azter ditzan (Dekretu honetako 12. artikuluan arautzen dira haren osaera eta funtzioak).

21. artikulua.– Ebaluazio Batzordea.

1.– Ebaluazio Batzordea kide hauek osatuko dute.

a) Teknologia eta Estrategiako Zuzendaritzako zuzendaria: presidente izango da, eta hitza nahiz botoa izango ditu.

b) Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAko (SPRI) Estrategia, Teknologia eta Berrikuntza Unitatearen ordezkari bat, hitza eta botoa edukita.

c) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko ordezkari bat, eta hitza nahiz botoa izango ditu.

d) Osasun Saileko ordezkari bat, eta hitza nahiz botoa izango ditu.

e) Teknologia eta Estrategiako Zuzendaritzako talde teknikoko pertsona bat: hitza izango du, baina botorik ez.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sail eskuduneko titularraren aginduz Ebaluazio Batzordearen osaera ezagutaraziko da.

Titularrak ez badaude, haien ordezkioak izenda daitezke. Gizonak adina emakume egoteko ahalgina egingo da, denak gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokikoak.

Ebaluazio Batzordeak pertsona gehiago sartzea erabaki dezake; adibidez, Ebaluazio Talde Teknikoko pertsonala edo baloratuko diren gaitan aditu diren pertsonak. Pertsona horiek bileretan eta gogoetetan parte hartuko dute, hitza izango dute baina botorik ez.

Ebaluazio Batzorde horretako pertsona guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabiltzeko eskubidea bermaturik izango dute beren eginkizunetan.

2.– Azterketa Talde Teknikoaren txostenak ikusi ondoren, Ebaluazio Batzordeak egiaztapen-proposamen bat egin, Ebazpen Organora igorri, eta hark Dekretu honetako 13. artikulua araberaz jardungo du.

3.– Bere proposamena egin baino lehen, Ebaluazio Batzordeak behar adina informazio bildu eta beharrezkoak diren egiaztapenak egin ditzake, Dekretu honetako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

### 22. artikulua.– Ebazpen Organoa.

1.– Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuorde eskudunari dagokio egiaztapen-eskabideak ebaztea, alde edo kontra.

2.– Egiaztapen-ebazpenak baldintza zehatz batzuk jar ditzake, eta bi urte baino lehen bete beharko dira, non eta, hasierako epea bete baino lehen hura luzatzeko eskaera eginda eta arrazoi-tuta, Ebazpen Organoak, Ebaluazio Batzordeak proposatuta, ez duen beharrezkotzat jotzen epe hori luzatzea baldintzak betetzeko bidean egin diren eta entitateak justifikatzen dituen aurrerapausoak ikusita. Hasierako epearen erdia luza daiteke, gehienez ere, epea. Epe hori bete ondoren, ebazpenean eskatutako baldintza justifikatu behar da, eta horrek beste egiaztapen-ebazpen bat ekar dezake berekin.

3.– Artikulu honetako lehenengo paragrafoan aipatzen den ebazpena gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, egiaztapen-eskaera osorik dagoen egunetik hasita. Epe hori bete ondoren ebazpena espresuki ez bada jakinarazi, eskaera baztertutzat joko da.

4.– Egiaztapen-ebazpenaren aurrean, erakundeak gorako helegitea aurkez dezake hilabeteko epean, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren aurrean.

5.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak arloan eskumena duten gainerako sailak jakinaraziko dizkie Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileei emandako egiaztapen-ebazpenak, bai eta ukatzeko ebazpenak ere, horiek eman ahala; horrez gain, egiaztapenen edozein aldaketa edo ezeztatzen ere jakinaraziko dizkie.

### 23. artikulua.– Eragile egiaztatuen eskubideak eta betebeharrak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek eskubide eta betebeharrak hauek dituzte:

#### 1.– Eskubideak.

a) I+G+b jardueretako laguntza-programak eskuratzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile egiaztatua izateko baldintza badute.

b) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile egiaztatua izatearen administrazio-agiri bat edonoz lortu ahal izatea.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile egiaztatua izatearen aitorten publiko eta instituzionala izatea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistro Publikoan sartuta (Dekretu honetako 19. artikuluan sortzen da).

2.– Betebeharrak.

a) Ikerkuntza-estrategiak bat etortzea Eusko Jaurlaritzako zientzia- eta teknologia-politikekin.

b) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako eragileekin lankidetzan ari-tzea, I+G emaitzak optimizatzeko.

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile izateko baldintzak betetzen jarraitzea.

d) Aurrerapen teknologikoak zabaltzea, Eusko Jaurlaritzako zientzia- eta teknologia-politikako jarraibideen arabera.

e) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egindako jarduerengatik eskatutako txostenak ematea EAEko Administrazio Orokorrari.

f) Estatutuetako eta gobernu-organoetako aldaketen berri ematea Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari.

g) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean kontra-tuak egiten dituzten erakundeei eta administrazioaren laguntzak hitzartzen edo jasotzen dituztenei ezarritako betebeharrak beren gain hartzea. Era berean, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 45.2 artikuluan xedatutakoaren arabera berdintasun-plan bat izatera behartuta daude-nen betebeharrak ere beren gain hartzea.

h) Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legean ezarritakoa betetzea.

24. artikulua.– Egiaztapenaren balioa, eta datuak mantentzea.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko egiaztapenaren balioa mugagabea da, Dekretu honetako baldintzak bete bitartean, Dekretu honetako 16. eta 17. artikulua gorabehera.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistroan dagoen edo-zein datu aldatzen bada, aldaketa hori egin duen erakundeak, ahalik eta lasterren, aldaketa-eskaera bat aurkeztu beharko du aipatutako bide elektronikoaren bidez. Aldaketa-eskaera hori erakundeko ordezkariak sinatu beharko du eta Teknologia eta Estrategiako Zuzendaritzara igorriko da. Zuzen-daritzara horretan aldaketa adieraziko da eta aldaketa horren justifikazio-dokumentazioa sartuko da.

3.– Teknologia eta Estrategiako Zuzendaritzak datu horien eguneraketa eta aldaketa baloratu eta, beharrezkotzat jotzen badu, Ebaluazio Batzordea deitzea eska dezake, egiaztapena berrikusi beharko balitz.

25. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak egiaztatzeko baldintzen jarraipena.

1.– Eragile egiaztatuen jarraipena egingo da, aldian-aldian eta beharren arabera, tipologia bakoitzerako Dekretu honetako baldintzak betetzen diren ebaluatzeko.

Horrela, Teknologia eta Estrategiako Zuzendaritzak datu eguneratuak eta justifikazio-agiriak eskatuko dizkie eragile egiaztatuei, aplikazio telematikoaren bidez.

2.– Informazio eguneratua ikusirik ebaluatuko dira lortutako emaitza globalak eta eragileen kategoriako baldintzen betetze-maila. Dekretu honetako 11. eta 12. artikuluei jarraituz egingo da ebaluazioa.

Ebaluazio horren ondorioz, egiaztapena mantendu egin daiteke lehengo tipologia berean, edo beste tipologia batean egiaztatu, edo egiaztapena baliogabetu, arautegi honetako 17. artikuluari jarraituz.

26. artikulua.– Egiaztapena baliogabetzea.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile gisa egiaztatutako erakundeek dekretu honetako baldintzaren bat betetzeari uzten badiote, egiaztapena baliogabetuko zaie, aurrez espediente bat izapidetu ondoren.

2.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak -eragilearen jardueretan inplikaturako Sai-lekin koordinatuta, eta Ebaluazio Batzordeak interesdunari aurretiazko audientzia bermatu eta aurretiazko txostena egin ondoren-, eragileari emandako aitortpena baliogabetu dezake, arrazoituta ebazpen bidez, eragileak arautegi honetako baldintzak betetzeari utzi diola egiaztatuz gero.

3.– Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzako titularrari dagokio igortzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zientzia- edo teknologia-eragilearen egiaztapena baliogabetzeko ebazpena.

4.– Egiaztapena baliogabetzeko ebazpenaren kontrako gorako helegitea jar daiteke Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren aurrean, ebazpena jasotzen denetik hilabeteko epean.

27. artikulua.– Egiaztapena eskatzeko epea.

1.– Egiaztapen-eskaera berriak aurkezteko epearen izaera mugagabea izango da, dekretu hau indarrean hasten den datatik hasita.

2.– 2002ko urriaren 1eko 221/2002 Dekretuan ezarritakoaren arabera Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean onartuta dauden eta Dekretu hau argitaratzen den datan sare horretan integratuta dauden eragileentzako aurkezpen-epea, Dekretu honetako lehen xedapen iragankorrean zehaztutakoa izango da.

## V. KAPITULUA

### ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREKO ERAGILEEN ERREGISTROA

28. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistro Publikoa sortzea.

Dekretu honen bidez sortzen da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistro Publikoa, eta bertan sartuko dira sareko kide gisa egiaztatutako eragile guztiak.

Erregistroa publikoa izango da, eta libre eta doan emango du informazioa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen ezaugarriei buruz.

Teknologia eta Estrategiako Zuzendaritzari dagokio kudeatzea Erregistro Publiko hori.

29. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragile Egiaztatuen Erregistro Publikoaren helburua.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragile Egiaztatuen Erregistro Publikoak hurrengo helburuak betetzen ditu:

1.– EAEko zientzia- eta teknologia-eskaintza jasotzea, eta Erregistroko eragile bakoitza identifikatzea eta kokatzea.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko osaeraren berri ematea, sistema gardena izan dadin.

3.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen lanaren balioa azpimarratzea.

4.– Eragileei Euskadiko eta kanpoko proiektuetan edo deialdietan parte hartzen laguntzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile egiaztatua izatea baldintza denean edo abantaila izan ahal denean.

30. artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistro Publikoan inskribatzea.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile izatearen egiaztapen-ebazpena dutenak automatikoki sartuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistro Publikoan.

2.– Erregistro horretako hirugarrenentzako informazio publiko eta eskuragarria jarraian zehazten dena izango da:

a) Eragilearen identifikazio-datuak:

1) Sozietate-izena.

2) Merkataritza-izena.

3) Posta-helbidea, web-helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, etab.

b) Jakintza-eta teknologia-arloak.

c) Egiaztapen-datuak:

1) Erregistroko inskripzio-data.

2) Egiaztatutako eragile-kategoria.

31. artikulua.– Erregistroko inskripzioa bertan behera uztea.

Erakunde bati Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile izatearen egiaztapena baliogabetzen bazaio, Dekretu honetako 17. artikuluaaren arabera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistro Publikoko bere inskripzioa bertan behera utziko da.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

EAEko Administrazio Orokorrak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean dauden Ikerketa, Transferentzia eta Berrikuntzako eragileei dei egiten die irabazi asmorik gabeko erakunde batean elkar daitezen, hark ordezkatzeko eta jarduerak eta beren arteko harremanak koordinatzeko, era horretan lankidetzara bultzatuta.



## LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau argitaratzen den datan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek eta 2002ko urriaren 1eko 221/2002 Dekretuan ezarritakoaren arabera sare horretako kide gisa onartuta dauden eragileek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko egiaztapen berri bat eskatzeko 2015eko irailaren 7a arte epea daukate Dekretu honetan xedatutakoaren arabera.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko egiaztapen berria eskatzen duten erakundeek bertako kide izaten jarraituko dute, erakunde egiaztatuen betebeharrak eta eskubide berdinekin, Dekretu honi jarraituz, aurkeztutako eskabidea arautegi honen arabera ebatzi bitartean.

## BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren arabera egiaztatutako eragileek ez badute egiaztapen-eskabidea aurkeztu aipatutako epe horretan, utzi egingo diote Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile izateari, nahiz eta ondoren aurkeztu dezaketen.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarri-arauak gaurkotzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretua indargabetu da, bai eta Dekretu honen edukari aurka egiten dioten maila bereko edo behegoko beste edozein xedapen ere.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua gai da, bere eskumenen esparruan, Dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko eta, zehazki, bertako eranskinen edukia eguneratzeko xedapenak emateko.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 23an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.

## ERANSKINAK

Honako eranskinetan, aginte-tauletan zein eskakizun kuantitatiboetan jasotako datuak betetzeko –betiere adierazleek horrela behar badute– sexuaren arabera bereizitako datuak bilduko dira.

Halaber, eragileek garatu beharreko estrategia-planak, jarduketa-planak eta gainontzeko planak prestatzeko orduan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan xedatutakoa beteko dute; bereziki printzipio hauek nabarmenduko dituzte beren langileei dagokienez: tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna eta aniztasun eta diferentziarekiko errespetua; genero-ikuspegia txertatzea; datuak bereiztea estatistikak eta azterketak egokitzeko orduan; hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta zuzendaritzako eta kide anitzeko organoetan ahalmen, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen ordezkariak orekatua egotea.

## I. ERANSKINA

### ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREAREN OSAERA ARAUTZEARI ETA EGUNERATZEARI BURUZKO EKAINAREN 23KO 109/2015 DEKRETUAREN OINARRIZKO ETA BIKAINTASUNEKO IKERKUNTZA ZENTROEI BURUZKOA

Eranskin honen xedea Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen plan estrategikoan agertu-beharreko elementuak zehaztea da; laburbilduz, hauek dira elementu horiek:

1.– Zentroaren deskribapen orokorra eta helburuak.

1.1.– Lan-esparrua eta justifikazioa, munduko erreferentzia-zentro nagusiak. Ikuskera, misioa eta balioak. Zentroko ikerketa-jardueraren balio erantsia.

1.2.– Zentroaren helburu estrategikoak.

1.2.1.– Ezagutza zientifikoko arloak eta horiei dagozkien ikerketa-programak.

1.2.2.– Ikerketa-programa bakoitzari lotutako ikerketa-lerroak.

1.3.– Gobernantza (zuzendaritza eta kudeaketa operatiboa ikerketaren alorrean eta zentroko kudeaketan nahiz administrazioan).

1.3.1.– Zentroko zuzendari zientifikoa (profila eta funtzioak).

1.3.2.– Ikerkuntza-lerro bakoitzeko ikertzaile nagusiak eta ikerkuntza-talde bakoitzeko ikertzaileak.

1.3.3.– Ikerkuntza-zentroko kudeatzailea (profila eta funtzioak).

1.3.4.– Talde teknikoa eta administratiboa.

1.3.5.– Nazioarteko Batzorde Zientifikoa, osaera, profil laburra eta bileren aldizkakotasuna.

1.4.– Zentroko laguntzaileen sarea eta itun estrategikoen ezarpena: Zientziaren Euskal Sistema Europako Ikerkuntza Esparruan txertatzea.

1.5.– Zentroaren etorkizuneko garapenaren ikuspegia.

2.– Bikaintasun zientifikoa eta ikerkuntza-jardunaren kalitatea.

2.1.– Ekintza-plana.

2.1.1.– Ikerketa-programak: Plana egin den momentuan aktibo eta ebaluazio-fasean zeuden ikerkuntza-proiektuak, argitalpen zientifikoak.

2.1.2.– Ikerketa-taldeak: Ikerketa-programa bakoitzeko ikerketa-lerroen ardura duten ikerketa-taldeen sortze-politika, sendotze-politika, nazioarteko hedadura eta ebaluazioa. Zentroko ikertzaileak erakartzeko eta trukatzeko politika, batez ere Ikerbasque fundazioko ikerlarien kasuan.

2.1.3.– Lotutako prestakuntza-jarduerak.

2.1.4.– Beste jarduera batzuk: hedapena eta transferentzia.

2.2.– Adierazleak: zentroko ebaluazio-eginkizunetarako eta jarraipenerako erabiliko den adierazleen taula.

2.3.– Zentroak lau urtetarako duen gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena,aldi horretan ekipamenduetan eta azpiegitura zientifikoetan egin beharko diren inbertsioak barne.

## II. ERANSKINA

### IKERKUNTZA SANITARIOKO INSTITUTUEI DAGOKIENA (109/2015 DEKRETUA, 2015KO EKAINAREN 23KOA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREAREN OSAERA ARAUTZEARI ETA EGUNERATZEARI BURUZKOA)

Eranskin honen helburua da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Ikerketa Sanitarioko Zentroek bete beharreko eskakizunak zehaztea; hauek izan behar ditu, labur esanda:

– Zuzendaritza zientifiko bat edo antzeko karguren bat duen antolamendu-egitura bat, eta gobernu- eta ordezkari-organotako bat, erakundeak batzea babesten duen lotura juridikora egokitua. Gobernu-organotako horretan, institutua osatzen duten zentro guztiak egongo dira ordezkariak, eta bertan izendatuko da horien legezko ordezkaria.

– Ikerketaren kudeaketa-egitura bakarra, zerbitzu sanitarioen erakundeetako laguntza- eta irakaskuntza-kudeaketatik bereizita. Egitura horrek beharrezkoa den euskarria eskainiko du arlo ekonomikoan eta administratiboan zein giza baliabideen arloan, eta lotura gisa jardungo du ikerketako emaitzen transferentzia egiteko bulegoarekin, Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioan (BIOEF).

– Plan estrategiko bat.

– Kanpoko Batzorde Zientifiko bat, institutuaren kalitate zientifikoa zaintzeko eta zuzendaritza zientifikoari aholkuak emateko.

– Babes-zerbitzu komunak: antzeko ikerketaren edo egituren oinarria izango diren unitateak izango dira hainbat talderentzat edo ikerketa-lerroentzat interesgarriak diren alderdi metodologikoetan edo instrumentaletan.

– Ikerketako prestakuntza-plan bat, gehienbat, hirugarren zikloko programekin lotura izango duena.

– Idatzizko gida bat, ikerketako kalitatea, etika eta jardunbide egokia eta zientifikoa bermatzeko, lege-xedapenak betetzen direla bermatzeko eta jarduketa-eremu honetan eskuarki onartutako printzipioak bermatzeko.

– Zentroko jardueretan parte hartzen duen eta hainbat zentrotatik datorren pertsonalaren erregistro bat. Han adieraziko da pertsonal horrek zentro horiekiko zein lotura duen.

– Datuen eta egindako I+G+b jardueren erregistro bat.

– Finantzaketa-plan bat, egitura- eta funtzionamendu-beharrizanak kontuan izango dituen, eta ibilgetu guztirako lehiakorra ez den finantzaketa (publikoa edo pribatua) lortzen saiaturiko dena, baita mantentze-kostuen finantzaketa % 60-70 ere.

– Institutu horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko emaitzen adierazle batzuk, besteak beste:

– Emaitza zientifikoaren adierazleak.

– JCR-ISI aldizkari argitalpenak, guztira.

– Lehenengo kuartileko argitalpenen kopurua, guztira.

– Inpaktu-faktorea, guztira.

- Aipamenen kopurua, guztira.
- Dokumentu bakoitzeko aipamenen kopurua.
- Osasuna hobetzeko aplikatutako emaitzen adierazleak.
- Saio kliniko aktiboen kopurua eta horien fasea.
- Amaitutako saio klinikoaren kopurua eta horien fasea.
- Aldizkari zientifikoetan argitaratutako saio klinikoetako emaitzen kopurua eta horien inpaktu-faktorea.
- Aldizkari zientifikoetan argitaratutako praktika klinikoaren gidak eta horien inpaktu-faktorea.
- Ereduen, prozesuen, tresnen eta/edo garatutako teknika klinikoaren edo antolaketakoaren kopurua.
- Praktika asistentzialean inplementatutako emaitzak.
- Emaitza ekonomikoaren adierazleak.
- Eskatutako patenteen kopurua.
- Emandako patenteen kopurua.
- Ustiatutako patenteen kopurua.
- Patenteetatik, royalty-etatik, industriarekin dituen kontratuetatik eta zerbitzu-emateetatik lortutako diru-sarrerak.
- Ikerketa-jardueraren adierazlea.
- Proiektu aktiboen kopurua, entsegu klinikoetatik bereiziz.
- Jatorri publikoko funtsa duen proiektu-kopurua: jatorri pribatuko funtsak eta zenbatekoak.
- Espainiako eta/edo nazioarteko bikaintasun-sareetan parte hartzea.

### III. ERANSKINA

**TEKNOLOGIA ZENTRO, IKERKUNTZA KOOPERATIBOKO ZENTRO,  
ENPRESETAKO I+G UNITATE ETA ESKAINTZA ETA ESKARI ARTEKO  
BITARTEKARITZA ERAGILEEI DAGOKIENA (109/2015 DEKRETUA, 2015EKO  
EKAINAREN 23KOA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL  
SAREAREN OSAERA ARAUTZEARI ETA EGUNERATZEARI BURUZKOA)**

Eranskin honetan zehazten dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sareko Teknologia Zentro, Ikerkuntza Kooperatiboko Zentro, Enpresetako I+G Unitate eta Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Eragileen baldintza kuantitatiboaren balioak, bai eta horien aginte-taula bakoitzean ezarritako 2020 arteko adierazleak, pisuak eta helburuak ere. Bertan agertzen dira dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko memorien eta txostenen edukiak ere.

#### 1.– Baldintza Kuantitatiboak eta Aginte Taulak

##### 1.1.– Teknologia Zentroak (TTZZ):

##### 1.1.1.– Foku Anitzeko Teknologia Zentroak.

	Egiaztapen-eskabideko baldintza zehatzak	2020. urtea amaitu baino lehen bete beharreko baldintza zehatzak
Egitura	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plantilla <math>\geq</math> 50 pertsona</li> <li>Gutxienez I+G ikertzaileen % 10 doktore-tituluduna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zentroko zuzendari nagusiak doktore-titulua eta enpresa-kudeaketako masterra edo esperientzia profesional baliokidea izan behar ditu.</li> <li>Gutxienez I+G ikertzaileen % 20 doktore-tituluduna (zentrokoak eta atxikiak)</li> </ul>
Finantzaketa	Zentro pribatuetarako: <ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa publiko ez-lehiakorra <math>\leq</math> zentroko I+G ustiaketa-sarreraren % 30</li> <li>Finantzaketa pribatua <math>\geq</math> I+G ustiaketa-sarreraren % 35</li> </ul> Zentro guztietarako: <ul style="list-style-type: none"> <li>Gutxienez 25 bezero desberdin izan behar dituzte, 10.000 euroko edo hortik gorako I+G jarduerak kontratatuta izango dituztenak itxitako azken ekitaldian</li> </ul>	Gutxienez 35 bezero desberdin izan behar dituzte, 10.000 euroko edo hortik gorako I+G jarduerak kontratatuta izango dituztenak itxitako azken ekitaldian
Gobernamendua	Zentro pribatuetarako: <ul style="list-style-type: none"> <li>Gobernu-organoetako enpresa-ordezkaritza <math>\geq</math> % 50</li> </ul>	
Kudeaketa		UNE ISO 166.002 arauarekin edo arau baliokide batekin bat datorren I+G+b-ko kudeaketa-sistema ziurtatu bat izan beharko da. Sistema horrek gaitasunak eta karrera profesionalak garatzeko plan homogeneo bat izan behar du, dekretu honen IV. eranskinean zehaztutakoa kontuan hartuta.

Foku Anitzeko Teknologia Zentroetako Aginte Taula:

ILDOA		ADIERAZLEA	PISUA	UNIT.	Helmuga 2020		
F. I+G arloko Jarduera Mixa	f1	Gastuaren % Funtsezko Ikerketan		%	% 10		
	f2	Gastuaren % Industria Ikerketan	% 10	%	% 60		
	f3	Gastuaren % Garapen Esperimentalean		%	% 30		
G. Espezializazioa	g1	Fabrikazio aurreratuko I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		%			
	g2	Energiako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean	% 10	%	% 90		
	g3	Osasun eta Biozientzietako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		%			
H. Bikaintasuna	Funtsezko Ikerketa	h1	Indexatutako zientzia-argitalpenak	% 2	Zk.	20	
		h2	Lehenengo kuartileko (Q1) argitalpen zientifikoak	% 2	Zk.	10	
	Industria-ikerketa	h3	EPO eta PCT patenteen eskaera	% 12	Zk.	3	
		h4	Lizentzia eta patenteen ondoriozko diru-sarrerak	% 12	`000 €	400	
	Garapen esperimentalak	h5	OTEBetatik datorren fakturazioa	% 4	`000 €	100	
		h6	Enpresaren fakturazioan duen inpaktua	% 8	`000 €	5.000	
I. Harremanen Eredua	Merkatura transferitzea	i1	Finantzazio pribatuaren % EAEn	% 5	%	% 40	
		i2	finantzazio pribatuaren % guztira	% 5	%	% 40	
		i3	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak	% 5	Zk.	12	
	ZTBESko agenteen arteko	i4	Doktore-tesien baterako zuzendaritza	% 5	Zk.	8	
		i5	Argitalpen zientifikoaren egile-kidetzak	% 5	Zk.	8	
	lankidetzak	i6	Batera asmatutako patenteak	% 5	Zk.	1	
		Nazioarteko lankidetzak	i7	Nazioarteko finantzazio publikoaren %	% 5	%	% 15
			i8	Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzak	% 5	Zk.	10

1.1.2.– Teknologia Zentro Sektorialak

	Egiaztapen-eskabideko baldintza zehatzak	2020. urtea amaitu baino lehen bete beharreko baldintza zehatzak
Egitura	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plantilla <math>\geq</math> 25 pertsona</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zentroko zuzendari nagusiak doktore-titulua eta enpresa-kudeaketako masterra edo esperientzia profesional baliokidea izan behar ditu.</li> <li>Gutxienez I+G ikertzaileen % 20 doktore-tituluduna (zentrokoak eta atxikiak)</li> </ul>
Finantzaketa	Zentro pribatueterako: <ul style="list-style-type: none"> <li>Finantzaketa pribatua <math>\geq</math> I+G zentroaren ustiaketa-sarrearen % 35</li> </ul> Zentro sektorial guztietarako: <ul style="list-style-type: none"> <li>Gutxienez 10 bezero desberdin izan behar dituzte, 10.000 euroko edo hortik gorako I+G jarduerak kontratatuta izango dituztenak itxitako azken ekitaldian</li> </ul>	
Gobernamendua	Zentro pribatueterako: <ul style="list-style-type: none"> <li>Gobernu-organoetako enpresa-ordezkaritza <math>\geq</math> % 50</li> </ul>	
Kudeaketa		UNE ISO 166.002 arauarekin edo arau baliokide batekin bat datorren I+G+b kudeaketa-sistema ziurtatu bat izatea. Sistema horrek gaitasunak eta karrera profesionalak garatzeko plan homogeneo bat izan behar du, dekretu honen IV. eranskinean zehaztutakoa kontuan hartuta.

Teknologia Zentro Sektorialetako Aginte Taula:

ILDOA		ADIERAZLEA	UNIT.
F. I+G arloko Jarduera Mixa		f1 Gastuaren % Funtsezko Ikerketan	%
		f2 Gastuaren % Industria Ikerketan	%
		f3 Gastuaren % Garapen Esperimentalean	%
G. Espezializazioa		g1 Fabrikazio aurreratuko I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean	%
		g2 Energiako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean	%
		g3 Osasun eta Biozientzietako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean	%
H. Bikaintasuna	Funtsezko Ikerketa	h1 Indexatutako zientzia-argitalpenak	Zk.
		h2 Lehenengo kuartileko (Q1) argitalpen zientifikoak	Zk.
	Industria-ikerketa	h3 EPO eta PCT patenteen eskaera	Zk.
		h4 Lizentzia eta patenteen ondoriozko diru-sarrerak	`000 €
	Garapen esperimentala	h5 OTEBetatik datorren fakturazioa	`000 €
		h6 Enpresaren fakturazioan duen inpaktua	`000 €
I. Harremanen Eredua	Merkatura transferitzea	i1 Finantzazio pribatuaren % EAEn	%
		i2 finantzazio pribatuaren % guztira	%
		i3 Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak	Zk.
	ZTBESko agenteen arteko lankidetzak	i4 Doktore-tesien baterako zuzendaritza	Zk.
		i5 Argitalpen zientifikoaren egile-kidetzak	Zk.
		i6 Batera asmatutako patenteak	Zk.
	Nazioarteko lankidetzak	i7 Nazioarteko finantzazio publikoaren %	%
		i8 Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzak	Zk.

1.2.– Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroak (IKZ)

	Egiatzapen-eskabideko baldintza zehatzak	2020. urtea amaitu baino lehen bete beharreko baldintza zehatzak
Egitura	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plantilla <math>\geq</math> 50 pertsona</li> <li>Gutxienez I+G ikertzaileen % 40 doktore-tituluduna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zentroko zuzendari nagusiak doktore-titulua eta enpresa-kudeaketako masterra edo esperientzia profesional baliokidea izan behar ditu.</li> <li>Gutxienez I+G ikertzaileen % 60 doktore-tituluduna (zentrokoak edo atxikiak)</li> </ul>
Finantzaketa	Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa publiko ez-lehiakorra $\leq$ zentroko I+G ustiaketa-sarreraren % 70	<ul style="list-style-type: none"> <li>Finantzaketa pribatua <math>\geq</math> I+G ustiaketa-sarreraren % <b>10%</b></li> <li>Gutxienez 20 bezero desberdin izan behar dituzte, 10.000 euroko edo hortik gorako I+G jarduerak kontratatuta izango dituztenak itxitako azken ekitaldian.</li> </ul>
Gobernamendua	Gobernu-organoetako enpresa-ordezkaritza $\geq$ % 30	
Kudeaketa		UNE ISO 166.002 arauarekin edo arau baliokide batekin bat datorren I+G+b-ko kudeaketa-sistema ziurtatu bat izan beharko da. Sistema horrek gaitasunak eta karrera profesionalak garatzeko plan homogeen bat izan behar du, dekretu honen IV. eranskinean zehaztutakoa kontuan hartuta.



Ikerketa Kooperatiboko Zentroetako (IKZ) aginte-taula:

ILDOA		ADIERAZLEA	PISUA	UNIT.	Helmuga 2020	
F. I+G arloko Jarduera Mixa	f1	Gastuaren % Funtsezko Ikerketan		%	% 60	
	f2	Gastuaren % Industria Ikerketan	% 10	%	% 30	
	f3	Gastuaren % Garapen Esperimentalean		%	% 10	
G. Espezializazioa	g1	Fabrikazio aurreratuko I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		%		
	g2	Energiako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean	% 10	%	% 100	
	g3	Osasun eta Biozientzietako I+G-ko gastuaren % I+G-ko jarduera osoaren gainean		%		
H. Bikaintasuna	Funtsezko Ikerketa	h1	Indexatutako zientzia-argitalpenak	% 12	Zk.	65
		h2	Lehenengo kuartileko (Q1) argitalpen zientifikoak	% 12	Zk.	60
	Industria-ikerketa	h3	EPO eta PCT patenteen eskaera	% 6	Zk.	2
		h4	Lizentzia eta patenteen ondoriozko diru-sarrerak	% 6	`000 €	200
	Garapen esperimentalak	h5	OTEBetik datorren fakturazioa	% 1	`000 €	3
		h6	Enpresaren fakturazioan duen inpaktua	% 3	`000 €	700
I. Harremanen Eredua	Merkatura transferitzea	i1	Finantzazio pribatuaren % EAEn	% 5	%	% 20
		i2	finantzazio pribatuaren % guztira	% 5	%	% 30
		i3	Euskal enpresetara transferitutako ikertzaileak	% 5	Zk.	7
	ZTBESko agenteen arteko	i4	Doktore-tesien baterako zuzendaritza	% 5	Zk.	15
		i5	Argitalpen zientifikoaren egile-kidetzak	% 5	Zk.	35
	lankidetzak	i6	Batera asmatutako patenteak	% 5	Zk.	1
		Nazioarteko lankidetzak	i7	Nazioarteko finantzazio publikoaren %	% 5	%
	i8		Euskal enpresek nazioarteko proiektuetan dituzten partaidetzak	% 5	Zk.	5

1.3.– Enpresetako I+G Unitateak

